


# EUSKAL HAUR ETA GAZTE LITERATURA WIKIPROIEKTUA



Memoria txostena

2016ko uztaila

## Edukien aurkibidea

|  |    |
|--|----|
| 1.SARRERA.....                           | 2  |
| 2.GLAM-WIKI.....                         | 3  |
| 3.HELBURU NAGUSIAK.....                  | 5  |
| 4.LANKIDETZA.....                        | 5  |
| 5.LAN EGUTEGIA.....                      | 6  |
| 6.LANAREN GARAPENA.....                  | 8  |
| 7.WIKILARI EGOILIARRA.....               | 10 |
| 8.EGOILIARRAREN LANEN AURREIKUSPENA..... | 11 |
| 9.BURUTUTAKO LANAK.....                  | 12 |
| 10.EMAITZAK.....                         | 17 |
| 11.ESTATISTIKAK.....                     | 18 |
| 12.LORPEN NAGUSIAK.....                  | 20 |
| 13.IRUDIAK LIZENTZIA ASKEAN.....         | 20 |
| 14.BALORAZIOAK.....                      | 21 |
| 15.ONDORIOAK.....                        | 26 |
| 16.ERANSKINAK.....                       | 27 |

# Euskal Haur eta Gazte Literatura Wikiproiektua

## 1. SARRERA

Euskarazko Haur eta Gazte Literatura Wikiproiektuak Euskal Haur eta Gazte Literaturako egileen eta obren inguruko informazioa eta ezagutza modu askean hedatzea izan du helburu, eta, horretarako, bidelagunik aiposenarekin egin du bat: Euskarazko Wikipedia. Biak batuz, alfabetatze digitala sustatzea eta wikipedia ikasleen artean ezagutzera ematea erdietsi ditu.

2015eko udazkenean jarri zen martxan honako erakundeen esku-hartzearekin:

- Donostia/San Sebastian 2016
- Donostia Kultura
  - Haur Liburuaren Dokumentazioguna (Liburutegi Nagusia – Haur Saila)
- Euskal Herriko Unibertsitatea
  - Irakasle Eskola
- Euskal Idazleen Elkarte
- Euskal Wikilarien Lankide Taldea



## 2. GLAM-WIKI

GLAM-Wiki ekimen bat izan da. Hain zuzen, Donostia Kulturaren parte den Donostiako Liburutegi Sareko Haur Liburuaren Dokumentaziogunea eta Euskarazko Wikipedia batu baititu bi erakundeek xedeak erdiesteko: erakundeak gordetzen dituen baliabide askeak sareratu eta ezagutza partekatu.

**GLAM:** Liburutegia GLAM siglek (ingelesezko Galleries, Libraries, Archives, Museums) osatzen duten erakundeen esparruan sartzen da, hau da, kultur ondarea gordetzen duten erakundeak.

**Wiki:** Wikipedia informazioa eta ezagutza libreki partekatzeko helburuarekin sortu zen sareko entziklopedia da. Hain zuzen, liburutegi publikoen helburu nagusiarekin bat egiten duen xedea da hori.

Bada, GLAM-Wiki egitasmoek bi erakunde mota horiek batzen dituzte helburu jakin bat erdiesteko: elkarlanean publiko zabalarentzat sarbide askeko eta libreki berrerabiltzeko edukiak sortzea.

Horregatik, Euskal Haur eta Gazte Literatura Wikiproiektua GLAM-Wiki egitasmo bat da. Baina ez da ohiko GLAM-Wiki egitasmoa, izan ere, ekimen honetan unibertsitatea ere sartu baita. Hortaz, hiru erakunderen artean gauzatutako egitasmoa izan da:

### GLAM – UNIBERTSITATEA – WIKIPEDIA



2015eko udazkenean jarri zen martxan wikiproiektu hau honako erakunde hauekin: Donostia Kultura, Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburutza; Donostiako Udal Liburutegiko Haur Liburuaren Dokumentaziogunea; Euskal Herriko Unibertsitatea (bereziki Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskola) eta Euskal Wikilarien Kultura Elkartea.

GLAM-wiki proiektuan parte hartzen duen erakundeak, wikipediako editoreekin elkarlanean, gordetzen dituen baliabide askeak sarelatzen eta ezagutzak partekatzen ditu. Besteak beste, artikuluen erreferentziak, lotura duten beste wikiproiektuak osatu, lizentzia egokia duten artxiboak partekatu, jorratzen duen alorreko artikulua sortu, etab.



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016  
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA  
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

**donostiakultura.com**



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

### 3. HELBURU NAGUSIAK

Honako helburuarekin sortu zen egitasmoa:

- Haur eta Gazte Literaturaren edukiak sortzea eta zabaltzea.
- Donostiako Haur Liburuaren Dokumentaziogunearen bilduma ezagutzera ematea, hedatzea eta alfabetizazio digitala sustatzea.
- Euskal Literaturari buruzko informazio tresna bat sortzea eta sustatzea.
- Euskal Wikipedia eta wikilari komunitatea indartzea.
- Ikasleen artean Wikipedia sustatzea eta ikasleak sortzaile bihurtzea.

### 4. LANKIDETZA

Arestian aipatu bezala, hainbat erakunderen arteko lankidetzan sortu eta abiatutako egitasmoa da Wikiproiektu hau. Honakoak izan dira bakoitzaren ekarpenak:

- Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburutza:
  - koordinazioa, finantziarioa eta gidaritza
  - Egitasmoa Donostiapediaren barruan kokatu, lana gainbegiratu eta laguntza eta babesa eskaini **wikilari egoiliarri**, batez ere.
- Donostia Kultura. Donostiako Udal Liburutegiko Haur Liburuaren Dokumentaziogunea:
  - Egitasmoa eragileei proposatu eta egoiliarra bere egoitzan hartu
  - Dokumentazioguneko katalogoan gaiarekin zerikusia duten dokumentuak aztertu, wikiproiektu honetarako informazio-erreferentziak lokalizatu, eta dena prest utzi unibertsitateko ikasleei helarazteko.
  - Unibertsitateko ikasleei Dokumentaziogunea eta bertan informazioa bilatzeko modua eta tresnak erakutsi.
- Irakasleen Unibertsitate Eskola (UPV/EHU)
  - 35 ikasle eta irakasle 1.
  - Binakako 16 talde osatu eta bakoitzak 3 artikulua sortu edo osatu beharko ditu Wikipedian.

- Euskal Idazleen Elkartea (wikilari egoiliarra):
  - Wikipediako artikuluak hornitzeko argazki, ilustrazio eta liburuen azalak lortzeko lizentzia libreko baimenen kudeaketa lanak
  - Irudiak wikimedia commonsen argitaratzeko urratsak
  - Wikiproiektuan artikulua duten egileekin harremanak
  - Wikiproiektuaren aurkezpena
  - Editatoretan parte hartzea
- Euskal Wikilarien Kultura Elkartea:
  - Formazioa, laguntza, aholkularitza...

## 5. LAN EGUTEGIA


- **Otsailak 23tik aurrera:**
  - EHUko Irakasle Eskolako ikasleei lehen formazio saioa eman zien Joxemaik.
  - Ikasleak gaia lantzen hasi ziren. Astean 3 orduko saioak izan dituzte, zazpi astez.
  - Donostia 2016 Fundaziotik, Xabier Cañasek bi formazio saio eman zituen Haur Liburutegi Nagusiko liburuzaintzat. Ibon Egaña irakasleak haietako batean hartu zuen parte.
- **Martxoak 1:**
  - Wikilari egoiliarraren 5 hilabeteko egonaldia hasi zen, Haur Liburuaren Dokumentaziogunearen gidaritzapean, bere egoitzan gauzatu da.
- **Martxoak 2:**
  - EHUko ikasleak Haur Liburuaren Dokumentaziogunean izan ziren. Bertan liburuzainekin eta egoiliarrarekin haien artikuluak osatzeko informazio bila ibili ziren. Wikilari egoiliarrak argazkitan jaso zuen jarduera hura.




- **Martxoak 3:** ikasleek bigarren formazio saioa jaso zuten.



- **Maiatzak 5:** Literaktum Wikilantegia. Literaktum jaialdira etorri ziren idazle eta ilustratzaileei buruzko artikuluak Wikipedian sortzeko.



- **Uztailak 9:**
  - Codefest egitasmoa amaitzeko “Bake itunak editathoia” antolatu zen. Bertan aurkeztu zen Euskarazko Haur eta Gazte Literatura WikiProiektua, euskaraz aurkeztu zen ingelesezko aldibereko itzulpenarekin eta ingelesezko aurkezpen digital batek lagunduta.





- Halaber, egitasmo honen baitan sortu diren artikulak hornitzeko lizentzia askean jasotako ilustrazioekin eta liburuen azalen irudiekin erakusketatxo bat egin zen. Irudi bakoitzak bere artikulura QR kodea zuen, baita proiektuaren gunerako QR kodea ere.



## 6. LANAREN GARAPENA


- **2015. Azaroa:** Lehen kontaktua eta bilerak proiektuko partaideekin
- **2016. Urtarrila-martxoa:**
  - Lehen wikilari egoiliarren deialdirako baldintzak eta oinarriak prestatu
  - Informazioaren kudeaketa:
    - Idazle, ilustratzaile eta obrei buruzko informazioa bildu, lehendik ez zegoena katalogatu, dossierak sortu...
    - Idazle eta ilustratzaileekin harremanetan jarri egitasmoa azaltzeko, wikipediaren irizpide nagusien berri emateko (erreferentzien garrantzia, lizentzia askeak...), eta haiei buruzko informazio gehiago eskuratzeko
    - Editore berrientzako tresnak diseinatu: hautatutako esteken gida eta beste baliabide batzuk
    - Wiki-proiektuaren gunea sortu wikipedian eta edioziorako zenbait lanabes sortu
- **2016. Martxoa-ekaina:**
  - EHUko ikasleen bisita Haur Liburuaren Dokumentaziogunean
  - EHUko ikasleekin wikipedia lantegiak
  - Edukiak editatzea
  - Irudiak lizentzia askean eskuratu ahal izateko baimen ereduak sortzea eta horiek kudeatzea
  - Elkarlana wikilari egoiliarrekin, bere lana gidatu
  - Dokumentaziogunea bisitatu duten idazle eta ilustratzaileei harrera egin eta egitasmoa gertutik erakutsi

- Kontrola, laguntza eta aholkularitza
- Proiektua garatzeko informazioaren kudeaketa
- Bideoaren grabazioa Akhonmedia produktorekin



- **2016. Uztaila:**

- Bideoaren edizioa
- Wikiproiektuaren aurkezpena
- QR kodeen bidez sortutako erakusketaren aurkezpena
- Wikiliburua sortu eta ikasleei bidali
- Ebaluazioa
- Wikilari egoiliarren egonaldiaren amaiera



## 7. WIKILARI EGOILIARRA

Hainbat GLAM erakundek wikilari egoiliar bat onartu dute beraien egoitzetan dituzten funtsak eta edukiak Wikipedian ahalik eta ondoen ezagutzera emateko helburuz.

Lehenengo wikilari egoiliarra Britaniar Museoan aritu zen 2010ean eta harrez gero beste batzuk egon dira hainbat erakundetan eta egitasmo honetan ere lagungarri izango zela ikusita, euskarazko wikipediako lehen egoiliarra hartzea erabaki zen.

Haur eta Gazte Literatura Wikiproiektuan laguntzeko eta zenbait lan aurrera ateratzeko, Euskal Idazleen Elkartearekin lankidetzan, Wikilari egoiliar bat lanean aritu da Haur Liburuaren Dokumentaziogunean. Hain zuzen, Lore Agirrezabal izan da euskarazko Wikipediaren historiako lehen Wikilari egoiliarra.


EHGL Wikiproiektuko egoiliarraren egitekorik garrantzitsuenak honakoak izan dira:

- Irakasle Eskolarekin garatzen ari den egitasmoan kolaboratu: egileekiko harremanetan, haien argazki eta irudiak eta horien baimenak kudeatzen...
- Horretaz gain, Wikipedian dauden haur eta gazte literaturen inguruko autore ezagunen artikulua batzuk euskarara itzuli ditu. Horretarako, beste hizkuntzetako Wikipedietatik (gaztelania, ingelesa, frantsesa) abiatu da eta Haur Liburuaren Dokumentaziogunean dauden dokumentuez aberastu ditu, erreferentzia berriak gehituz itzulitako artikuluei.



## 8. EGOILIARRAREN LANEN AURREIKUSPENA

- Epea: 2016ko martxoaren 1etik uztailaren 31ra.
  - Non: Donostiako Haur Liburuaren Dokumentaziogunean.
  - Lanaldia: lanaldi erdiz, lau ordu egunean.
- Egiteko zehatzak:
  - Wikipediako artikuluen itzulpenak:
    - Espainiako Haur eta Gazte Literaturaren Saria jaso dutenen artean:
      - 6 idazleren artikuluen itzulpena + erreferentzia berriak bilatu
      - ilustratzaile 1: artikuluen itzulpena + erreferentzia berriak bilatu
    - Nazioarteko sariak (Hans Christian Andersen eta Astrid Lindgren sariak):
      - 5 idazle: itzulpen lana + erreferentzia berriak bilatu
      - 5 ilustratzaile: itzulpen lana + erreferentzia berriak bilatu
  - Egile eta ilustratzaileekin harremana:
    - Guztira, 60 bat hartu-eman sortuko direla aurreikusi da (informazio, argazki eta irudi eske, horiek libre erabiltzeko baimen eske...)
- Argazkiak lehenengo [Flickr](#)-era eta gero [commons](#)-era igo: 30
  - Donostia Kulturaren Flickr kontuan [EHGL Wikiproiektua](#) izeneko albuma sortu irudiak lizentzia librean bertara igotzeko. Modu horretan, cc-by-sa-2.0 lizentziarekin jarri ahal izan ditugu wikimedia commons-en, gero gure wikiproiektuan txertatzeko.




- Ilustrazioak lehenengo Flickr-era eta gero commons-era igo: 15
- Haur eta Gazte literatura eta Wikipediaren inguruan egin daitezken jardueren antolakuntzan kolaboratuko du (hitzaldiak, ikastaroak, editatoiak...).

- Egonaldia eta ekintzei buruzko txostenak egingo ditu eta Wikilari komunitateari jakinaraziko die.

## 9. BURUTUTAKO LANAK

- Wikiproiektu honetan sortu diren artikulua osatzeko argazkiak, ilustrazioak eta liburu azalak Wikipedian lizentzia askean erabiltzeko baimena lortzea. Idazle, ilustratzaile eta argitaletxeekin harremanetan jarriz, egitasmoa aurkeztuz eta haien irudia edo lana partekatzeko lizentzia askeko baimena eskatuz.
- Dokumentu horiek digitalizatzea, sailkatzea, eta Wikimedia Commons-era igotzea. Horretarako, dokumentu gehienak (irudiak) egile edo jabeen baimenarekin lizentzia askean erabili ahal izateko, Flickr web gune edo sareko argazki biltegian argitaratu behar izan ditu lehendabizi CC BY-SA 2.0 zigitupean. EHGL Wikiproiektua izeneko albuma sortu zuen Donostia Kulturaren Flickr kontuan eta bertan daude eskuratutako argazki denak: <https://www.flickr.com/photos/donostiakultura/albums/72157663754060043>
- Wikiproiektu honetan egin diren jardueren, lanen eta hartu-emanen inguruko argazkiak ere bildu ditu egoiliarak. Guztiak wikiproiektuaren Irudiak atalean jaso dira: [https://eu.wikipedia.org/wiki/Wikiproiektu:Haur\\_eta\\_Gazte\\_Literatura/Irudiak](https://eu.wikipedia.org/wiki/Wikiproiektu:Haur_eta_Gazte_Literatura/Irudiak)



- Haur eta Gazte literaturari buruzko artikuluak Wikipedian sortzea. Horretarako Haur Liburuaren Dokumentazio-gunean dauden dokumentuak erabili dira.



- Haur eta Gazte literaturaren inguruko autore ezagunen artikulak Wikipedian euskarara itzultzea. Idazleak aukeratzeko hartu diren irizpideak hauek izan dira:
  - Estatu mailan eta nazioarte mailan dauden sari garrantzitsuenen bat lortu izana.
  - Beraien obra euskarara itzulita izatea.
  - Artikuluak euskaraz sortuta baldin badaude jadanik, hobetzeko beharra izatea, edukia edo erreferentziak.
- Idazle hauen artikulak itzuli ditu:
  - Espainiako idazleak:
    - [Antonio Rodríguez Almodóvar](#) (Espainiako Haur eta Gazte Literatura Sari Nazionala)
    - [Fina Casalderrey](#) (Espainiako Haur eta Gazte Literaturaren Sari Nazionala)
    - [Maite Carranza](#) (Espainiako Haur eta Gazte Literaturaren Sari Nazionala)
    - [César Mallorquí](#) (Espainiako Haur eta Gazte Literaturaren Sari Nazionala)
    - [Alfredo Gómez Cerdá](#) (Espainiako Haur eta Gazte Literaturaren Sari Nazionala)
    - [Ana María Matute](#) (Espainiako Haur eta Gazte Literaturaren Sari Nazionala)

- Espainiako ilustratzailea:
  - [Ana Juan](#) (Espainiako Ilustrazioaren Sari Nazionala)
- Nazioarteko idazleak:
  - [Ana Maria Machado](#) (Hans Christian Andersen Saria)
  - [Christine Nöstlinger](#) (Hans Christian Andersen Saria eta Astrid Lindgren Memorial Award)
  - [Maria Gripe](#) (Hans Christian Andersen Saria)
  - [Martin Waddell](#) (Hans Christian Andersen Saria)
  - [Gianni Rodari](#) (Hans Christian Andersen Saria)
  - [Uri Orlev](#) (Hans Christian Andersen Saria)
- Nazioarteko ilustratzaileak:
  - [Roberto Innocenti](#) (Hans Christian Andersen Saria)
  - [Anthony Browne](#) (Hans Christian Andersen Saria)
  - [Quentin Blake](#) (Hans Christian Andersen Saria)
  - [Rotraut Susanne Berner](#) (Hans Christian Andersen Saria)
  - [Maurice Sendak](#) (Hans Christian Andersen Saria eta Astrid Lindgren Memorial Award)
  - [Shaun Tan](#) (Astrid Lindgren Memorial Award)
  - [Max Velthuijs](#) (Hans Christian Andersen Saria)
- Haur eta Gazte literatura eta Wikipediaren inguruko jardueretan parte hartzea (hitzaldiak, ikastaroak, editatoiak....).
  - Egonaldia eta ekintzei buruzko txostenak egitea eta Wikilari komunitateari jakinaraztea.
  - Egile eta ilustratzaileekin harremana:
    - Guztira, 15 idazle, 15 ilustratzaile eta 4 argitaletxerekin izan ditu hartu-emanak: informazioa, argazkiak, ilustrazioak eta liburuen azalak eskatuz, eta horiek libre erabiltzeko baimenak bidaliz eta sinatuta jasoz.
    - Horrez gain, 35 ikaslerekin ere hartu-emanetan izan da idazle eta ilustratzaileengandik jasotako informazioa helarazteko.

- Gora-behera guztien berri partekatu du lankideekin: Elena Oregi, Marta Maza eta Xabier Cañas. Horietako batzuk Aitor Astigarragarekin eta Ibon Egañarekin ere bai.
- Oro har, dozena bat telefono-dei eta 500 bat email-trukaketa izan dira 5 hilabete hauetan.



- Egitasmoa gauzatzeko emandako urratsen argazkiak atera eta wikimedia commonsera igo: 30
- Argazki, ilustrazio eta liburuen azalak lehenengo Flickr-era eta gero wikimedia commons-era igo: 47
- Haur eta Gazte literatura eta Wikipediaren inguruan egin daitezken jardueren antolakuntzan kolaboratu du: Literaktum-en barruan egin zen ikastaroan parte hartuz eta parte hartzaileei oinarrizko baliabideak irakatsiz, *1516-2016. Bake-itunak 30x30 Challenge* edo editathoian EHGL Wikiproiektua aurkezteko hitzaldia eskainiz...





- Erakusketa: wikiproiektu honen bidez lizentzia librean wikimedia commonsen argitaratu diren ilustrazioekin eta liburuen azalekin erakusketaxo bat sortu dugu. Irudi bakoitzari bere artikulurako QR kodea jarri diogu (QR-pediaren bidez sortua) eta Wikiproiektu honen QR kodea ere bai. Modu horretan proiektuaren zati bat (bisualena) euskarri fisikoetan ikus daiteke eta hortik euskarri digitalean garatu den wikiproiektura sartzeko aukera eskaintzen da.



- Wiki-liburua: wikipediako artikuluekin liburua osatu du. Hori dela, egindako lanaren erakusle paperezko liburua editatu eta inprimatu da. Horretarako wikipediak eskaintzen duen PediaPress sistema erabili dugu. Liburua osatzeko wikiproiektuan sortu diren artikuluz guztiak hautatu dira, baita Euskal haur eta gazte literatura izeneko artikulua ere, Larraitz Uria erabiltzaileak sortutakoa. Guztiak biribiltzeko, hitzaurrea idatzi zen egitasmoan parte hartu duten alde guztien artean eta guztien oniritziarekin. Liburuaren kopia bat Haur Liburuaren Dokumentaziogunean artxibatu da. Besteak wikiproiektuan parte hartu duten ikasleei bidali zaizkie.
- Bideoa: wikiproiektu honen esperientzia iruditan jaso eta zabaltzeko bideo bat ekoiztea hobetsi zuen lan-taldeak. Hasierako gidoia Dokumentaziogunean osatu zen,

eta, ondoren, Donostia 2016ko Dokumentazio sailak hartu zuen ekoizpenaren ardura, Maddalen Zabaletak ikuskatua eta Akhonmedia produktorak ekoitzita sortu da.

- Egonaldia eta ekintzei buruzko txostenak egin ditu eta Wikilari komunitateari jakinaraziko die.


## 10. EMAITZAK

- Ikasleek 48 artikulua sortu dituzte, gehienak berriak
  - 16 artikulua euskal ilustratzaileenak
    - Horietako 10 artikuluk sortzailearen ilustrazio bana dute
  - 16 artikulua euskal idazleenak
  - 16 artikulua euskal obrenak
    - Horietako 15 artikuluk liburuaren azalaren irudia dute
  - Wikilari egoiliarrek nazioarteko idazleen 19 artikulua itzuli ditu gaztelaniazko eta ingelesezko Wikipediatatik euskarazko Wikipediara.
- Edizioak, guztira: 1.547
  - Batz bestea: 61,88
  - Byte kop. guztira: 191.536,00
  - Batz bestea: 8.706,18
  - Guztira, sortutako orri kopurua: 60


## 11. ESTADISTIKAK

Estatistikak ateratzeko eta beste batzuekin alderatzeko Wikipedian orrialde bakoitzak duen ikustaldi estatistikak erabili ditugu. Haietan ikusi dugunez, wiki-proiektu honek egoiliarraren egonaldiarekin eta ikasleen edizio lanekin batera abiada hartu zuenetik gora egin dutela ikustaldiek.

Wiki-proiektuaren aurkezpen orriak, esaterako, apirila eta maiatza bitartean izan zituen bisita gehien. Apirilaren 20an jo zuen goia 47 bisitekin.



Wiki-proiektu honetan gehien bisitatu den orrialdea artikuluen zerrenda biltzen duena izan da. Martxoaren 1etik egun askotan izan ditu 10 eta 20 bisita artean.




Sortutako artikuluei dagokienez, wikiproiektu honetatik kanpo sortu diren beste artikuluek denbora tarte berean izan duten bisita kopuruekin aldetuta, nabarmen handiagoa da wikiproiektuko artikuluen kopurua.

Hona bi adibide:


- **Haur eta gazte literaturako idazleak:**

[Juan Kruz Igerabide](#) (EHGL Wikiproiektua)

[Pako Aristi](#)



Gailurra: apirilaren 14an, **110** bisita izan zituen




Gailurra: maiatzaren 24an **82** bisita izan zituen


- **Haur literaturako ilustratzaileak:**

[Elena Odriozola](#) (EHGL Wikiproiektua)

[Antton Olariaga](#)



Gailurra: maiatzaren 19an **72** bisita izan zituen



Gailurra: martxoaren 17an **14** bisita izan zituen

## 12. LORPEN NAGUSIAK

- LAN-TALDEA: LIBURUTEGIA – UNIBERTSITATEA – WIKIPEDIA
  - Hiru erakundeen arteko elkarlanak oso aberatsa izan da guztientzat.
  - Lan kooperatiboa izan da:
    - Liburutegiak bere ezagutza eta funtsak unibertsitateko ikasleen eskura jarri ditu
    - Unibertsitateko ikasleek erreferentzia horiek baliatuz egoki idatzi dituzte artikuluak euskarazko Wikipedian, hura aberastuz eta Liburutegiko dokumentuak publiko zabalago batengana iristeko moduan jarritz. Bide batez, euskal wikilari berriak sortzeko hazia erein da.
    - Euskal Wikipedia 48 artikulua berriz hornitu da Wikilarien Lankide taldeko kideen babesa eta laguntza izan dute ikasleek: formazioa jaso dute hainbat kidek ikasleen artikuluei informazio gehigarria jarri
- WIKILARI EGOILIARRA:
  - Hiru erakundeentzat proiektuaren erreferentzia-puntu bihurtu da.
  - Idazle, ilustratzaile eta argitaletxeekin harremanetan jarritz wikiproiektuaren berri eman die eta wikipediako artikulua aberasteko informazio eta irudien eskaerak kudeatu ditu
  - Wikipediako editore lanak egin ditu:
  - Wikipedian, ezinbestean egin behar den moduan, irudiak lizentzia askean erabiltzeko baimenak kudeatu ditu eta lortutako irudiak wikimedia commonsen erabilgarri jarri ditu.
  - Beste hizkuntzetako Wikipedietatik euskarazkora itzuli ditu nazioartean ezagunak diren Haur eta Gazte Literaturako idazle eta ilustratzaileen artikulua. Guztira, 19 izan dira. Horrekin Euskarazko Wikipedia osatzeko lanean parte hartu du.

## 13. IRUDIAK LIZENTZIA ASKEAN

Proiektuaren ardatz bihurtu diren Euskarazko Haur eta Gazte Literaturako idazle, ilustratzaile eta obren argitaletxeek harrera ezin hobea egin diote egitasmoari. Eskatutako informazioa eta irudiak uzteko prest agertu dira gehienak eta egitasmoa abian jarri izana ere eskertu dute. Honakoa lortu dugu sortu den elkarlan horri esker:

- Idazle eta ilustratzaileen argazkiak
  - Creative Commons Attribution-Share Alike 2.0
- 16tik 10 ilustratzailek haien ilustrazioa askatu dute, lizentzia askean utzi dute

- Creative Commons Attribution-Share Alike 2.0
- 16tik 15 libururen azalen irudiak lizentzia askean utzi dituzte argitaletxeek wikiproiektu honetarako
  - Creative Commons Attribution-Share Alike 2.0

## 14. BALORAZIOAK

### • DONOSTIA KULTURA

- Abiapuntua

Liburutegirako wikipediako egitasmo bat bultzatzea zerbait erabat berria zen. Entziklopedia askearen bidez, helburu batzuk bete zitezkeela aurreikusi genuen: haur literaturari buruzko ezagutza eta edukiak zabaltzea eta areagotzea, bertako bildumaren erabilera areagotzea, gure ohiko erabiltzaileak (magisteritzako ikasleak) beste modu batean erakartzea eta alfabetizazio digitala lantzea, Donostia 2016ko helburuekin bat egitea eta liburuzainak trebatzea.

Helburu orokor horietara heltzeko, bide zehatza markatu genuen: magisteritzako irakasle baten inplikazioa eta erakundeen babes behar genuen. Ez genuen argi lortuko genuenik eta aldapatsu ikusten genuen gure ohiko lana eta wikipedia-egitasmoa uztartzea. Ibon Egañaren baietzak eta wikilari egoilarra egitasmo honetara bideratu izanak, besteak beste, ahalbideratu du hau aurrera ateratzea eta liburuzainon ikuspegi baikorra.

- Alde onak:
  - Euskal haur literaturari buruzko eduki berriak sortu dira eta erabiltzaileek asko kontsultatzen duten tresna bat erabili da horretarako: Wikipedia.
  - Haur Liburuaren Dokumentaziogunea eta bere bildumaren hedapena. Ikasleak erabiltzaile izan dira eta bertako funtsak wikipediako artikuluz guzti horietan agertzen dira erreferentzietan.
  - Alfabetizazio digitala landu da, ikasleak ikerlari eta sortzaile bihurtu dira, euskarazko wikilari komunitatea indartuz. Liburuzainak ere wikipedian trebatu dira.

- Ikasle, idazle eta ilustratzaileen aurrean liburutegia informazioa lortzeko eta zabaltzeko abiapuntu moduan agertu da. Ikasleen kasuan bereziki interesgarria da, hemendik gutxira irakasle bihurtuko direlako. Liburutegia eta beraren funtsen erabilera bultzatu da, batetik, eta bestetik beraren irudia gaurkotzeko lagungarria izan da.
- Donostia 2016 helburuekin bat egin da, hau da, herritarren parte-hartzea eta teknologiaren ezaguera eta erabilera sustatu da.
- Elkarlana bultzatu da, kolektibo eta sektore desberdinekiko lankidetzak baikorra izan da: ikasle, idazle, ilustratzaile, argitaletxe... Egileek beraiei buruzko informazioa bidali dute. Horri esker, Dokumentazioguneko fondoa aberastu da, aipatzekoa da Enkarni Genuak bidalitakoa.
- Eragileen arteko harremanak errazak eta aberasgarriak izan dira. Ezinbestekoa izan da bakoitzaren ekarpena. Egoiliarraren papera bereziki aipatzen dut zerbait berria izan delako eta funtsezkoa hainbat lan burutzeko eta liburuzainek bere beste lanei ekiteko. Kasu honetan, egoiliarra izan den Lore Agirrezabalek, ezin hobeto bete ditu beraren eginkizunak.
- Hobetzekoak:
  - Artikuluen aukeraketan, kontuan hartu behar da ea nahiko informazio dagoen argitaratuta gai bakoitzari buruz.
  - Irakaslearekin batera bideak bilatu behar dira, ikasleek besteen lanen informazioaz aberasteko.
  - Bideoa egitea erabaki eta hasi zen denbora tarte luzeegia izan da.
- **EHU/UPV (Ibon Egaña, irakaslea):**
  - Balorazioa, 1etik 10era: 7
  - Trabak eta zailtasunak:
    - Ikasleei dagokienez:
      - Wikipediaren inguruko ezagutza-falta (erregistroa, edukiak, erreferentziak...)
      - Edizioaren inguruko zalantzak ugariak eta etengabeak izan dira hasieran

batez ere, eta horrek lana oztopatzen zuen.

- Hainbat kasutan (ilustratzaileetan bereziki) artikulua sortzea kostatu egin zaie, ez zegoelako egindako biografiarik, eta han-hemenka topatu dutelako informazioa.

- Irakasleari dagokionez:
  - Neure ezagutza-falta hainbat arazo tekniko konpontzeko.
  - Zalantzak izan ditut maiz zer eskatu behar nien, zer zen Wikipediako artikulua on bat.
  - Zaila egin zait ikasleei ulertarazten Wikipediako erregistroa zein den: objektibotasuna, erreferentzietan oinarritua. Erregistroa hori menperatzea kostatu egin zaie batzuetan.
  
- Alde onak:
  - Ikasleen motibazioa piztea lortu dela uste dut. Ez beti eta ez ikasle guztiengan, baina asko gogotsu aritu dira, eta eskertu dute halako proiektu batean esku hartzeko aukera.
  - Wikilarien eta Haur Dokumentazioguneko langileen babesa eta laguntza izan dugu uneoro eta babes hori eskertu dugu prozesuan zehar.
  - Ikasleek dokumentatu behar izan dute eta besteak beste Haur Dokumentaziogunea ezagutu eta erabili behar izan dute. Gainera, katalogoak kontsultatzen, informazioa bilatzen, egile-eskubideak kudeatzen... ikasi behar izan dute.
  - Gaur egungo haur eta gazte literaturaren izen eta idazlan nagusienak eta HGLren ezaugarri eta klabe nagusiak barneratzeko baliagarria izan dela uste dut.
  
- Hobetu beharrekoak:
  - Bikoteka aritu dira lanean, eta guztiak hartu dute proiektuan. Hala ere, ikasleek aipatu dute ez dutela beste ikaskideen artikuluen berririk izan apenas. Bakoitza bere artikuluetan aritu da lanean, eta falta izan da lantzen ari ziren artikulua taldekideen partekatze formulak bilatzea.
  - Ikasgaiko edukiakin lotura koherenteagoa bilatu beharko litzaioke, bestela aparteko lan solte bat bezala ikus dezakete.
  
- Hurrengo egitasmoetarako:
  - Talde osoaren proiektuari garrantzia eman beharko litzaioke, denek jakin dezaten besteek egindakoen berri, eta, agian, artikulua gutxiago eskatu.



- **WIKILARIEN LANKIDE TALDEA**

- Alde onak:

- GLAM erakundeekin eta hezkuntza arloko erakundeekin, batez ere, Unibertsitatearekin elkarlanean aritzeko aukera izan da.
- Wikipedia gazteen artean ezagutzera emateko aukera izan da: zer den eta nola funtzionatzen duen erakusteko, bereziki.
- Wikipedia hobetu egin da:
  - Artikulu berriak sortu dira.
  - Sortuta zeudenak zabaldu eta hobetu egin dira.
  - Haur eta Gazte Literaturaren arloa hobetu eta sakondu egin da egitasmo honi eskerrak.
- Liburuen azalak lortu dira:
  - liburuei buruzko artikuluak osatuago geratu dira.
  - Honek bide bat zabal dezake liburuei buruzko artikuluak irudiekin osatu ahal izateko.
- Eman eta hartu: gizartea eta erakundeen arteko harremanetan
  - Gizarteak erakundeari emandako baliabideetatik sortutako zerbitzuak (ezagutzak) gizartera itzultzeko modua ahalbideratu du egitasmoak.

- Hobetu beharrekoak:

- Laguntza tekniko eta jarraipen handiagoa behar da lana egiten den bitartean.
- Wikilari bilakatzeko prozesua korapilatsua eta luzea da, zaila da ikastaro batean araudi, teknika eta funtzionamendu guztiak barneratzea. Espektatibek, beraz, oso zehatzak eta mugatuak behar dute izan.

- **WIKILARI EGOILIARRA**

- Alde onak:

- Wikipedia: informazioa sortzen eta kudeatzen lan egiten duenarentzat tresna oso interesgarri, konfiantzazko eta erabilgarria dela berresteko balio izan du egonaldiak. Halaber, informazio hori sortzeko eta kudeatzeko tresna ere badela ikusi eta ikastea oso baliagarria izan da egoiliarraren formaziorako eta ibilbiderako.

- Lana: oso interesgarria izan da, are gehiago Haur eta Gazte Literaturaren inguruan lanean ari den batentzat. Horrek, gaia eta protagonistak ezagutzeak, idazle, ilustratzaile eta argitaletxeekin izandako harremanetan asko lagundu du.
  - Lekua: Euskarazko Haur eta Gazte Literatura Wikiproiektuan lan egiteko lekurik aproposena izan da Haur Liburuaren Dokumentaziogunea, bertan esku-eskura baitaude wikipediako artikulua osatzeko erreferentziak eta haur eta gazte literaturaz betetako gunea delako.
  - Iraupena: egin beharreko lanak burutzeko neurri-neurriko epealdia izan da. Ez da inoiz horregatik itota ibili eta lana gustura eta lasai egiteko modua izan du.
  - Harremanak: liburutegiko lankideekin nahiz erakundeetako ordezkariekin izandako harremanak oso errazak, irekiak eta lagungarriak izan dira. Oso harrera ona egin zaio beti egoiliarrari eta oso aintzat hartu da bere lana eta funtzioa. Konfiantza eta askatasun handia eman zaio bere ordutegia egokitzerakoan, egoitzara sartzeko aukeretan eta bere lan egiteko moduan.
- Hobetu beharrekoak:
    - Egitasmo honetan azken unean sortu diren zenbait ekimen behar bezala burutu eta bideratzeko hasieratik aurreikustea komeniko da hurrengo wikiproiektuetan:
      - Wikiliburua: ikasleei opari ematea erabaki da, baina haiek ez dute horren berri jakin. Etxera bidali beharko diegu, dagoeneko ikasketak amaitu dituztelako, baina guztien helbideak ez ditugu lortu. Hori aurreikusi ezker, hobe bideratuko da.
      - Bideoa: egitasmoari buruzko bideoa egin nahi izan da, eta uztailaren 9ko editathoian egin zen aurkezpenean jarri nahi zen, baina ez ginen amaitzera iritsi; azkenean, zuzenketa guztiekin ondo amaitzeari eman zitzaion lehentasuna eta ez datari. Hurrengorako, egutegi zehatzagoa egin eta betetzea komeniko litzateke. Batez ere proiektuan hainbat erakunde badaude eta guztien oniritzia behar badu bideoak.

## 15. ONDORIOAK

- Kultur edukien hedapenerako Wikipedia oso tresna baliagarria da: Euskal kulturaren ezagutza sustatzeko eta GLAM erakunde baten bilduma ezagutzera eman eta publiko zabalarekin partekatzeko bide eman du wikiproiektu honek.
- Sustapenerako, hedapenerako eta elkarlanerako bide berriak urratu ditugu (editoreak, liburuzainak, autoreak, wikilari egoiliarra...)
- Esperientzia berri eta aberasgarria izan da GLAM erakunde batek, kasu honetan liburutegiak, Unibertsitatearekin batera eta wikilari egoiliar batekin wikiproiektu bat osatzea. Uste dugu, aurrera begira egitasmo gehiagotan aintzat hartu beharreko formula dela:

### **GLAM erakundea + hezkuntza erakundea + wikilari egoiliarra + wikipedia**

- Idazle, ilustratzaile eta argitaletxeekin harreman ona izan dugu. Haiek erraz ulertu dute guztien onerako egitasmoa zela eta interes handia agertu dute, gehienek egin dizkigute haiei buruzko artikuluen komentarioak.
- Ilustratzaile gehienek euren ilustrazioak lizentzia askean uztea eta argitaletxe gehienek (batek izan ezik) liburuen azalen irudiak lizentzia askean uztea garrantzitsua eta bitxia izan da, wikipedian ez baita ohikoa osagai grafiko horiek agertzea.
- Euskararen komunitatea hizkuntz-komunitate txiki bat izateak hainbat erraztasun eman dizkigu lana biribiltzeko unean, eta, idazle, ilustratzaile eta argitaletxeekin harremanetan jartzean. Haiek guztiek ere pozik hartu dute wikipedian lehen aldiz agertzeko aukera izatea eta wikiproiektuari harrera oso ona egin diote, bakoitzak bere ibilbideari buruzko informazioa gehigarria eskura jarritz eta lehen esan bezala irudiak lizentzia askean utziz.
- Hori dela eta, Euskarazko Wikipediak eta Euskal Herriko erakundeek bere hizkuntz-komunitatean erraztasun handiz sortzen diren sinergiak baliatu beharko lituzke bakoitzak bere helburuak lor ditzan; komunitate osoaren mesederako izango baita.
- Emaitei dagokienez:
  - Oso produktiboa eta wikipediako egitasmoentzat mesedegarria izan da
  - Egitasmoan parte hartu duten alde guztiekin hartu-eman oso ona sortu da

## 16. ERANSKINAK

**donostiakultura.com**

### **LIZENTZIA ASKEAN ARGITARATZEKO BAIMENA / PERMISO PARA PUBLICAR BAJO LICENCIA LIBRE**

Argitaletxea / Editorial:

Ordez kariaren Izen-abizenak / *Nombre y apellidos del representante:*

IFK / CIF:

Irudiaren izena / *nombre de la imagen:*

Irudiaren ezaugarriak / *Detalles de la imagen:*

Argitaletxe honek, goian agertzen denak, adierazten du aipatutako lanaren ustiaketa eskubideen jabe bakarra dela.

Ados dago irudi hori ondorengo lizentzia askean argitaratzeko: Creative Commons Aitortza-Berdin Partekatu 4.0 Nazioartekoa.

Onartzen du edonork eskubidea izango duela lan hau erabiltzeko, produktu komertzial edo antzeko gisa ere, eta bere beharren arabera aldatzeko, betiere lizentziaren baldintzak eta aplikagarriak diren gainerako legeak betetzen baditu.

Badakit egileak beti mantenduko dituela lizentziaren araberako aitortza eskubideak. Besteek lanaren gainean egindako aldaketek ez dute copyright-jabearen aitortzarik izango.

Onartzen du akordio honetan ez duela atzera egiterik izango, eta edukia Wikimedia proiektuan betiko gorde daitekeela.

Horrela jasota gera dadin, izenpetzen du honako hau Donostian,

2016ko.....ren .....(e)an.

Esta editorial, la cual se indica arriba, afirma que es el único titular de los permisos de explotación de la obra que se indica.

Consiente publicar dicha obra bajo la licencia: Creative Commons Atribución – Compartir igual 4.0 Internacional.

Reconoce que concede a cualquiera el derecho a usar este contenido en un producto comercial, así como a modificarla de acuerdo a sus necesidades, siempre que cumpla las condiciones de la licencia y el resto de leyes aplicables.

Soy consciente de que el autor siempre retendrá los derechos morales sobre el contenido. La modificaciones que otros hagan de la obra no contendrán el reconocimiento de autoría.

Reconoce que no puede retractarse de este acuerdo, y que el contenido puede o no ser almacenado permanentemente en un proyecto de la Fundación Wikimedia.

En prueba de conformidad, lo firma en Donostia, a ..... de ..... de 2016

Sinadura / Firma,



## LIZENTZIA ASKEAN ARGITARATZEKO BAIMENA / *PERMISO PARA PUBLICAR BAJO LICENCIA LIBRE*

Izen-abizenak / *Nombre y apellidos:*

NAN / *DNI:*

Irudiaren izena / *nombre de la imagen:*

Irudiaren ezaugarriak / *Detalles de la imagen:*

Nik, goian agertzen denak, adierazten dut aipatutako lanaren egile eskubideen jabe bakarra naizela.

Ados nago irudi hori ondorengo lizentzia askean argitaratzeko: Creative Commons Aitortza-Berdin Partekatu 4.0 Nazioartekoa.

Onartzen dut edonork eskubidea izango duela lan hau erabiltzeko, produktu komertzial edo antzeko gisa ere, eta bere beharren arabera aldatzeko, betiere lizentziaren baldintzak eta aplikagarriak diren gainerako legeak betetzen baditu.

Badakit beti mantenduko dudala nire lanaren jabetza intelektuala, eta lizentziaren arabera aitortza eskubideak mantenduko ditudala ere. Besteek lanaren gainean egindako aldaketek ez dute copyright-jabearen aitortzarik izango.

Onartzen dut akordio honetan ez dudala atzera egiterik izango, eta edukia Wikimedia proiektuan betiko gorde daitekeela.

Horrela jasota gera dadin, izenpetzen dut honako hau Donostian,

2016ko.....ren .....(e)an.

Yo, la persona que se indica arriba, afirmo que soy el único titular de los derechos de autor de la obra que se indica.

Consiento publicar dicha obra bajo la licencia: Creative Commons Atribución – Compartir igual 4.0 Internacional.

Reconozco que concedo a cualquiera el derecho a usar este contenido en un producto comercial, así como a modificarla de acuerdo a sus necesidades, siempre que cumpla las condiciones de la licencia y el resto de leyes aplicables.

Soy consciente de que siempre retendré los derechos morales sobre el contenido, es decir, el derecho a ser reconocido como autor. La modificaciones que otros hagan de la obra no contendrán el reconocimiento de autoría.

Reconozco que no puedo retractarme de este acuerdo, y que el contenido puede o no ser almacenado permanentemente en un proyecto de la Fundación Wikimedia.

En prueba de conformidad, lo firmo en Donostia, a ..... de ..... de 2016

Sinadura / Firma,

